URBIDE - ARABAKO UR PARTZUERGOA - CONSORCIO DE AGUAS DE ÁLAVA

ELGEA MENDILERROKO SISTEMAK ZERBITZATZEN DUEN HAINBAT HERRIETAN UR-HORNIDURAREN ARAUKETARI BURUZKO MURRIZKETEN JAKINARAZPENA.	**COMUNICACIÓN DE ESTABLECIMIENTO DE RESTRICCIONES PARA LA REGULACIÓN DEL ABASTECIMIENTO DE AGUA EN VARIAS POBLACIONES SERVIDAS POR EL SISTEMA DE SIERRA ELGEA.**
Lehorte hidrologikoaren ondorioz, udan ur gehiago kontsumitzeagatik larriagotu dena, Elgea mendilerroko sistemaren ur-erreserbak kaltetuta ikusi dira. Hori dela eta, neurri jakin batzuk hartu behar dira herritarrei ur-hornidura bermatu ahal izateko.	Como consecuencia de la situación de sequía hidrológica, agravada por un mayor consumo durante el periodo estival, se ven afectadas las reservas de agua en el sistema de Sierra de Elgea, lo que hace necesario adoptar determinadas medidas para garantizar el suministro de agua a la población.
Urbideren hornidura-zerbitzua emateko ordenantza teknikoaren 12. artikuluak ezartzen duenari jarraiki, partzuergoak mugak aplikatu ahal izango ditu horniduran emari-eskasiak edo tratamendu-zailtasunek hala gomendatzen dutenean.	Según establece el artículo 12 de la ordenanza técnica de prestación del servicio de abastecimiento de Urbide, cuando circunstancias de escasez de caudales o dificultades en el tratamiento así lo aconsejen, el consorcio podrá aplicar restricciones en el suministro.
Hori guztiagatik, eta besterik agindu arte, honako hau egingo da: 1. Edateko ura hornitzeko eskuragarri dauden baliabide hidrikoen koiunturazko eskasiagatik, alerta-egoera deklaratzea, ondoren adierazten den eremuetan. 2. Besterik agindu arte, hornidura-saretik eratorritako uraren erabilera hauek debekatzea: a. Ura lorategiak edo baratze publiko zein pribatuak ureztatzeko erabiltzea. b. Ura bideak, kaleak edo espaloiak, publikoak zein pribatuak, edo bide publiko edo pribatuetan instalatutako beste edozein elementu ureztatzeko erabiltzea. c. Ura ibilgailu partikularrak garbitzeko erabiltzea, jarduera horretarako berariaz baimendutako establezimenduak izan ezik. d. Iturrietan zein instalazioetan ura helburu apaingarri hutsetarako erabiltzea. e. Igerileku pribatuak betetzea edo birjartzea.	Por lo anterior y hasta nueva orden se procede a: 1. Declarar la situación de alerta por escasez coyuntural de los recursos hídricos disponibles para el abastecimiento de agua potable en el ámbito que se señala. 2. La prohibición, hasta nueva orden, de los siguientes usos del agua procedente de la red de abastecimiento: a. El uso de agua cuyo destino sea el riego de jardines o huertas de carácter público o privado. b. El uso de agua cuyo destino sea el riego o baldeo de viales, calles o aceras, tanto públicos como privados, o de cualesquier otros elementos instalados en las vías públicas o privadas. c. El uso de agua para el lavado de vehículos particulares fuera de establecimientos específicamente autorizados para dicha actividad. d. El uso de agua con fines puramente ornamentales en fuentes e instalaciones.

Neurri hauek biztanlegune hauetan aplikatuko dira: • Gaunako Kontzejoa. • Trokonizeko Kontzejoa. • Txintxetruko Kontzejoa. • Burgeluko Udala. • Añuako Kontzejoa. • Arbuluko Kontzejoa. • Argomanizeko Kontzejoa. • Burgeluko Kontzejoa. • Gazetako Kontzejoa. • Ixonako Kontzejoa. • Alegria-Dulantziko Udala. • Egiletako Kontzejoa. • Mendijurreko Kontzejoa. • Oreitiako Kontzejoa. Era berean, **herritarrek uraren erabileran duten erantzukizuna eta elkartasuna** eskatzen da, ura ahalik eta modu eraginkorrenean erabiltzeko behar diren neurri guztiekin jarraituz.	e. El llenado o reposición de piscinas privadas. Estas medidas son de aplicación en los núcleos de población de: • Concejo Gauna. • Concejo Trokoniz. • Concejo Txintxetru. • Ayto. Elburgo/Burgelu. • Concejo Añua. • Concejo Arbulu. • Concejo Argomaniz. • Concejo Elburgo/Burgelu. • Concejo Gazeta. • Concejo Hijona/Ixona. • Ayto. Alegria-Dulantzi. • Concejo Egileta. • Concejo Mendixur/Mendijur. • Concejo Oreitia. Asimismo, se apela a la **responsabilidad y solidaridad de los vecinos y vecinas** en el uso del agua, continuando con todas las medidas necesarias encaminadas a la utilización más eficiente posible de la misma.

Ribabellosan sinaduraren datan
En Ribabellosa a fecha de firma.
Lehandakaria/Presidente, JULEN IBARROLA GOBANTES